

693/2022 EBAZPENA, abuztuaren 12koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren behin-behineko esleipena argitaratzeko agintzen duena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren esparruan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lan egiten duten lizentziadun sanitarioen, diplomadun sanitarioen eta langile ez-sanitarioen eta lanbide-heziketako profesional sanitarioen lanbide-garapena arautzen duten azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuaren eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuaren 11. artikulua araber, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari dagokio langileak mailetan kokatzeko ebaluazio-prozesuaren deialdia egitea.

Osakidetza zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez, arautu egin ziren Osakidetza mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapenaren maila esleitzeko ezohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak eta prozedura.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren 5. artikulua araber, ezohiko deialdiaren salbuespeneko izaera kontuan hartuta, lanbide-garapeneko I., II., III. eta IV. mailak aitortuko dira eskaera egiten den lanbide-taldean emandako zerbitzu-urteen baldintzak betetzearen araber, azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuaren 4. artikulua eta otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 dekretuetan ezarritakoari jarraikiz; hots, 5 urte I. mailarako, 11 urte II. mailarako, 18 urte III. mailarako eta 25 urte IV. mailarako. Lanbide-garapeneko maila esleitzeari dagokionez, emandako zerbitzuen zenbaketa aipatutako deialdiaren ebazpenaren 3. artikulua ezarritakoaren araber egingo da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak, ebazpen horren 5. artikulua ezarritakoari jarraikiz, maila esleitzeko behin-behineko proposamen bat egin die maila lortzeko baldintzak betetzen dituzten profesionalen, giza baliabideen informazio-sisteman eskaera egiteko epea hasten den egunean eskuragarri dauden datuak oinarri hartuta.

Eskatzaileek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egindako behin-behineko esleipen-proposamen horrekin ados dauden adierazi ahal izan dute. Beraz, ebazpenean ezartzen den moduan, hala egin dutenei behin betikotzat joko zaie behin-behineko esleipena, eta hori behin betiko ebazpen bidez ebatziko da hala dagokionean.

Bestalde, 1208/2022 Ebazpenaren beraren 5.2 artikulua araber, eskatzaileak uste badu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egindako proposamena ez dela zuzena edo ez baletoz bat berak eskura dituen datuak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egindako proposamenean aurkezten direnak, berrikusteko edota zuzentzeko eskaera egin beharko du.

1208/2022 Ebazpenaren 4. artikulua araututako eskaera-epea amaitu ondoren, eta ezohiko deialdiaren adierazitako eskaera-epean egindako berrikusteko edota zuzentzeko eskaerak ebatzi ondoren, 1208/2022 Ebazpenaren 2.2 artikulua ezarritako ofiziozko eskaerak egin ondoren eta mailak esleitzeko zenbait proposamenen edukian detektatutako akatsak zuzendu eta zuzendu ondoren, Osakidetza zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren 5.2.a) artikulua ezarritakoaren araber, Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritza honek honako hau



EBAZTEN DU:

Lehenengoa. – Behin-behinean ebaztea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren bidez argitaratutako lanbide-garapeneko ezohiko deialdiaren esparruan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako profesionalen lanbide-garapeneko mailaren esleipena eta ebazpen hori Osakidetzaren intranetean eta webgunean argitaratzeko agintzea.

Interesdun bakoitzak lanbide-garapenaren mailaren bere esleipena kontsultatu ahal izango du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>. Helbide hori Osakidetzaren intranetaren zein webgunearen bidez egongo da erabilgarri.

Bigarrena. – Ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenaren 5.2.a) artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen honen aurka erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, 10 egun balioduneko epean, 2022ko abuztuaren 16tik aurrera. Erreklamazioak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanbide-garapeneko aplikazio informatikoan egin beharko dira, helbide honetan: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>, 2022ko abuztuaren 16ko 9:00etatik 2022ko abuztuaren 29ko 14:00ak arte.

Aplikazio informatikora sartzeko arazoak dituztenek Osakidetzaren webguneko lanbide-garapenaren atalean dagoen formularioaren bidez egin ahal izango dute erreklamazioa.

Hirugarrena. – Erreklamazioak aurkezteko aurreko apartatuan ezarritako epea amaitu ondoren, garaiz eta behar bezala egindako erreklamazioak baietsiko edo ezetsiko dira eta zuzendari nagusiak esleitutako mailen behin betiko ebazpena EHAAan argitaratzeko aginduko du, bai Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak egindako mailaren esleipena onartu duten eskatzaileei dagokienez, bai behin-behineko esleipenaren proposamena onartu ez eta 1208/2022 Ebazpenaren 5. artikuluko 2. aukera hautatu zutenei dagokienez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 12a



Osakidetza
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARITZA
Dirección de Recursos Humanos

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA